



6 / 2016 JARRAIBIDEA

NORK: OSAKIDETZA / EUSKAL OSASUN ZERBITZUKO ZUZENDARI NAGUSIA

NORI: OSAKIDETZAKO ZERBITZU

- ZUZENDARI GERENTEAK
- ZUZENDARI MEDIKOAK
- ERIZAINZAKO ZUZENDARIAK
- KUDEAKETA SANITARIOKO UNITATEAK

GAIA:

OSASUN BERRIKUNTZA ETA IKERKETAREN FUNDAZIOAREN ERABAKIAK EUSKAL  
BIOBANKUAREN INGURUAN

#### AURREKARIAK

2015eko uztailaren 10ean Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen 2015eko uztailaren 7ko 135/2015 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoan arlo biomedikoan ikerketak egiteko diren biobankuen baimentze erregimenari eta funtzionamenduari buruzkoa.

Dekretu horrek zehaztu egiten ditu gurean betebeharrekoak diren baldintzak, biobanku bat eratzeko orduan eta haren funtzionamenduari dagokionez ere. Hori gainbegiratzea Osasun Sailaren zuzendaritzaren ardura da, osasun arloko zentro, zerbitzu eta establezimenduen baimentze eta erregistroaren eskumena duenarena, alegia.

Dekretu horrek Xedapen Gehigarrian onartu egin du Euskal Biobankua badagoela eta ofiziala dela; izan ere, araudi hori argitaratzeko egunerako jada eraturik eta izena emanda zegoen Biobankuen Erregistro Nazionalean.

Honako jarraibide hauen bitartez erraztu nahi da Euskal Biobankuaren eginkizuna, lagin biologikoak kudeatzeko zerbitzu sanitarioko tresna izatea baitu helburu, baita alderdi etikoei eta legezkoiei begira sistema berrmatuko duen tresna eta ikerketa proiektuak –hirugarrenen elkarlanarekin zein ez– gauzatzen lagunduko duen tresna ere. Hori guztia xede hartuta ematen dira honako hauek:



### Jarraibideak

Lehenengoa.- Ikerketa biomedikorako lagin biologikoen tratamendua, Osakidetzan, arloan aplikatu beharreko arau orokorren arabera egingo da.

Bigarrena.- Osakidetzan Ikerketa biomedikorako jasotzen diren lagin biologikoak Biobankuaren bitartez kudeatuko dira, eta kasu orotan derrigor jakinarazi beharko zaio alde aurretik iturri izango den pertsonari Euskal Biobankura eramango direla eta han dagokion moduan kudeatuko direla.

Hirugarrena.- Ikerketa biomedikorako lagin biologikoak batzen dituzten Osakidetzako Unitate Asistentzialek men egingo diete Euskal Biobankuan eskumena daukaten erakundeek emandako jarraibideei laginak jasotzeko eta lekuz aldatzeko orduan.

Laugarrena.- Jarraibide hau Osakidetzaren web ofizialean argitaratzen den egunean bertan sartuko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2016ko otsailaren 29an.

ZUZENDARI NAGUSIA  
DIRECTOR GENERAL

Iz. Jon Etxeberria Cruz  
Osakidetzako zuzendari nagusia